



**EUSKO
IKASKUNTZA**



MANUEL LEKUONA Saria **Premio MANUEL LEKUONA**

**Jose Antonio
Arana Martixa**




28

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**Jose Antonio
Arana Martixa**



28

MANUEL LEKUONA Sarria
Premio MANUEL LEKUONA

Jose Antonio
Arana
Martixa



2010



EUSKO
IKASKUNTZA

Egileak: Pruden Gartzia Josune Olabarria



Remigio Mendibururen brontzezko eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

GARTZIA, Pruden ; OLABARRIA, Josune

Jose Antonio Arana Martixa / Pruden Gartzia, Josune Olabarria ; [itzulpena euskaratik gaztelerara Belaxe, Koop. E.]. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2011. – 143 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona ; 28). – Testu elebiduna euskaraz eta espainolez. – Manuel Lekuona Saria 2010.

ISBN: 978-84-8419-213-8

1. Jose Antonio Arana Martixa – biografia 2. Bibliografia – Jose Antonio Arana Martixa.
I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

Azaleko argazkia / Foto cubierta: Euskomedia Fundazioa (Andrés Espinoza)

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Ikaskuntza, Hezkuntza Ministerioa eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa.

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Miramar Jauregia – Miraconcha, 48 – 20007 Donostia


Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

ISBN: 978-84-8419-213-8

LG: SS-478-2011

Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa: Michelena artes gráficas

Datu biografikoak	7
Datos biográficos	53
Une gogoangarriak	101
Momentos memorables	101
Bibliografia	117



*Ihardets cieçón lefufec, Ni publicoqui minçatu içan
natzayóc munduari, nic bethiere iracatfi vkan diat fynagogán
eta templean, nora lduac alde guciataric biltzen baitirade,
eta fecretuan ez nauc minçatu deus*


(Jn, 18, 20) [Joanes Leizarragaren bertsioa, 1571]



Haurtzaroa

Jose Antonio Arana Martixa jaio zenean, 1931ko martxoaren 10ean, artean errege Alfonso XIII.a zegoen Espainiako tronuan eserita eta, artean, boterearen erpinetik agintzen, mundu honetan sekulan ezer garrantzikorik gertatuko ez balitz bezala. Nahikoa izan ziren hiru aste, hala ere, haren tronu, aginte eta larderia bertan behera gelditzeko teoriarik udal hauteskunde hutsak ziren batzuen ondorioz. Errepublikak aldarrikatu zen eta, horrela, ume txiki haren asturua behin betiko markatua geratu zen aldaketa etengabearen gurpil zoro baten seinalearekin. Izan ere, handik aurrera Euskal Herria berriz ere nahi eta ezinaren deman murgilduko da luzaro, batzuk herria jaso eta eraiki nahi zuten bitartean beste batzuen eskutik ukazioa baino ez baita erantzungo. Prozesu hori behin eta berriro ikusiko dugu errepikatzen gure begien aurrean, hamarkada joan eta hamarkada etorri, eta gaur egun ere alde edo moldez horrela gaudela esan daiteke. Jose Antonio Arana *eraikitzaileen* aldean izango dugu beti.

Gernikan jaio zen Jose Antonio, familia abertzale baten baitan. Aita, Gregorio Arana, jatorriz muxikarra, barku kapitaina zen Sota y Aznar konpainia entzutetsuan. Ama, Kristina Martixa, gernikarra, sustrai nafar luze baten ondorengoa. Jose Antonio, beraz, ama aldetik da gernikarra, baina Muxika beti gogoan badarama ere, eta han bizi izandakoa bada ere gerraostearen urte latzetan, gernikarra izango da muturreraino, atxikimendu sutsu batez.



Gernika, jakina denez, herri euskalduna da, eta abertzalea ere hein handi batez, baina ez horregatik kontraesanik gabea. Horrela, adibidez, ondo gogoratzen du Jose Antoniok ikastola bat izan zela bere lehen eskola, Gernikako ikastola, Euskal Herrian egon den lehenetarikoa; baina ondo gogoratzen du, halaber, sasoi hartan parroko zen Jose Domingo Iturraran euskaldun peto-petoa izan arren euskaraz dotrinarik eman nahi ez zuena. Gurasoen hautua garbia izan zen orduan: baziren Gernika jesuita euskaltzale batzuk, dotrina euskaraz ematen zutenak, Felipe eta Joan Jose Goikoetxea eta Raimundo Olabide euskaltzain sonatua, bada, haiekin ikasi zuen Jose Antoniok. Halaber, sei urte besterik ez zituela, ikastolan irakurtzen eta idazten ikasi ondoren, herriko batzokiak antolatutako irakurtze lehiaketa baten parte hartu zuen, lehen saria irabaziz; Seber Altuberen eskutik jaso zuen sari hori. Erraz esan daiteke, beraz, ume-umetatik euskaltzain handien babespean hazitakoa dela, gero berau ere euskaltzain handi izateko.

Baina gatozen berriz ere Gernikara. 1937ko apirilaren 26an gertatu zen zorigaiztoko bonbardaketa, sei urteko umea zen Jose Antonioren gan egundoko zirrara utzi zuena, hala nola utzi zuen baita ere gernikarra eta euskaltzaina zen Luis Villasanterengan. Jose Antonioren etxea, berak *aitaita Melitonen etxea* deitzen duena, zutik geratu zen gutxienetakoa izan zen. Horretan badu zerikusirik Lumoko elizaurreko Saraspe auzokoa izatea, hots, Gernikatik bertatik apartetxo den auzo batekoa, eta bestetik aitak bonbak jausten hasi orduko izandako ideia bikaina: bainuontzia urez bete berehala, hartara laster amatatu ahal izan zuten etxean jausi zen suzko bonba bakarra. Baina etxea zutik geratu bazen ere, etxetiarrak ihes egin beharrean suertatu ziren berehala, Bilbora lehenengo, Frantziara gero, Arroxelara. Etxeko altzari guztiak, berriz, frankista sartu berriek *errekisatu* zituzten; umore handiz kontatzen du oraindik ere gure Jose Antoniok aitaita Melitonek haiek udaletxean ikustean alkate izendatu berriari nekez murduskatzen zuen gaztelania kaxkarrean bota zion eztenkata mikatza (*Ya konozko yo los muebles estos...*).


Sei urteko umea zela Nantesera heldurik tifusarekin gaixotu zen berehala eta hiru hilabete eman behar izan zuen Montargiseko ospitalean, bakarrik, isolatuta; hantxe hasi zen



ikasten frantsesa, hantxe eta Rivedoux eta La Flotte izeneko herritxoetan, non bizi izan ziren 1939an gerra bukatu ondoren Bilbora itzuli ziren arte. Aita itsasontzitik jaitsi bezain laster atxilotu zuten eta gerra kontseiluan bizi guztiko kartzela ezarri, baina laster atera zen kartzelatik. Bitartean Jose Antonio Bilbon egon zen, Lutxana kaleko Cervantes eskolan ikasten; han ekin zion gaztelania ikasteari, bere *hirugarren hizkuntza*, haren hitzetan. Gero, aita kalean zela, Muxikara joan ziren bizitzera, amamarenera. Aita saltzaile hasi zen lanean, bizikleta bat hartuta inguruko herrietara joz: Lekeitiora, Bermeora, Markinara... denborarekin bere kontura jarri zen eta biltegi bat zabaldu zuen Gernikako Erdiko kalean. Huraxe izan zen Jose Antonioren lehenengo lana, aitari laguntzea etxeko negozioan.

1 942an, artean mutiko koxkorra zela, seminariora doa ikasketekin segitzera. Lau seminario desberdin ezagutuko ditu orduan: Gordexola, Bergara, Artea eta Gasteizko seminario handia. Bergarakoa gogoratzen du bereziki, han pasatutako gosea eta hotza. Urte latzak izan ziren horiek guztientzat. Gasteiztik, aldiz, oroitza hobeak ditu: han ezagutu zuen gero bere bizitzako une batean garrantzi erabakigarria izan duen don Andres Mañarikua, eta hor ekin zion lehenengo aldiz bere bizitzako ardatza izango den *eraikitzaile* bokazioari, don Andresei lagunduz hango bibliotekako kudeaketa lanetan.

Erljioa eta fedea beti izan dira garrantzitsuak Jose Antonioren bizitzan baina laster konturatu zen ez zeukala apaiz bokaziorik eta, hartara, 1947an seminarioa utzi eta bere kontura ekiten dio batxilergoa ikasteari. 1949an gainditzen du azken kurtsoa eta libretik aurkezten da *Examen de Estado* delakora (*errealida*) Valladolideko unibertsitatean, Sari Berezia eskuratuz. Ondoren, Mañarikua gomendaturik, Deustun hasi zen Zuzenbidea ikasten. Karrera hori amaiturik Ekonomia ikasteari ekin zion Bilboko Komertzio eskolan. Baina sekula ez zen izan ikasle hutsa, ikasketak beti lanen batekin (edo birekin!) konbinatu behar izan baitzuten: klase partikularrak eman edo, batez ere, aitari lagundu bere biltegian. Zuzenbide ikasketak 1954an amaitu zituen eta Ekonomiakoak 1959an utzi zituen guztiz bukatu gabe; aurreko urtean, 1958an, bere lehen idazlan luzea aurkeztu zuen tesina gisa: *Crisis y resurgimiento agrícola en el siglo XVIII*. Baina bitartean soldadutza ere egin beharra zegoen! Valladolidera bidali zuten, sarjentu. Haren lehen harremana militarrekin



paradigmatikoa suertatzen da: egundoko errieta jasotzen du agintarien aurrean kalekoz jantzita aurkezteagatik eta hamabost egunetarako sartzen dute kartzelara. Lehen aldia izan zen.

Seminariotik atera bezain laster, bestalde, berehala ekiten dio orduko euskal kultur mundu xumean murgiltzeari. Hartara, eta oraindik *apaiztegiko kutsua* galdu gabe (haren hitzetan esateko) Gernikako Juventudes Obreras Católicas (JOC) izeneko taldean sartzen da eta hark argitaratutako *Brisas Guerniquesas* izeneko aldizkarian kolaboratzen hasten da. Batez ere artikulu laburrak idazten ditu, gaztelaniaz, hainbat kultur gairi buruz (literatura, musika, historia...), baina gure Jose Antonio ez da inoiz aparretan bizitzen ahalegindu; alderantziz, denetarik egin behar izan du, ezeri muzinik egin gabe: artikuluak idatzi ez ezik, aldizkaria maketatu *minerva* izeneko inprenta-makinan, berunezko letrak erabiliz. Eskuak tintaz zikindu, aldizkari bat aurrera ateratzea ez baita bakarrik testuak idaztea. Urte batzuen ondoren, 1959an, aldizkariko zuzendari izendatzen dute. Garai hartan gaztelaniazko literaturak liluratuta zegoen; Fray Luis de Leon, bereziki, betirako izan du kutuntzat, baita gaur egun ere. Zenbat aldiz ez diogu, bada, entzun *De los nombres de Cristo* (1587) Teologiako saiakera klasikoa goratzen!

Literaturarekin batera musika da bere orduko eta geroko kulturgintzaren bigarren zutabe nagusia. Santa Zezilia korala sortzen du 1954an beste lagun batzuekin batera eta urte askoan hor jardungo du, kontzertuak ematen eta herrian musika ekitaldiak antolatzen; ez zuzendari edo antolatzaile gisa bakarrik, besteak beste bereziki gogoratzen du *Katuska* zarzuelan baritono gisa kantatu zuela berak. Izan ere, Jose Antoniorentzako kultura ez da esparru bakar batean jokatzen den partida, aitzitik, alor askotara zabaltzen da, eta guztietan eragin nahi izan badu ere, ziur aski musika izan da beti bere kuttunena.

Baina bere eragin eremua ez da oraindik agortzen; seminariotik atera berri ere beste talde batean ere integratzen da, osaba baten gomendioz: Gaueko Gurtze Espainiarrean (Adoración Nocturna Española). Gorago esan dugun bezala, Jose Antoniok beti eman dio garrantzia erlijioari eta fedeari eta giro horretan saiatu zen bere kezkei irtenbidea ematen nahiz eta, ezaguna

denez, erakunde horren orduko jite eskumatar eta espainolista oso gustukoa ez izan. Eta hor, berriz ere, bere jarrera *eraikitzaileak* berehala talka egiten du orduko giro frankista itxiarekin: gaueko adorazioan hiru talde zirenez gero, horietako bat euskarazkoa izatea proposatzen du. Ez zaio onartzen. Ez zen arazo bakarra izan: behin Elorriora joanik elkartearen herri arteko jaialdi handi batera, Gernikako taldearen banderari atxikita zeraman lazotxoak kentzea bururatzen zaio, hain juxtu ere Espainiako banderaren koloreekin egindako lazotxoak. Ez zen zalantza askorik izan jakiteko norena izan zen ekimena, Jose Antonio berau baitzen Gernikako adorazio-elkartearen presidentea eta banderaduna! Berehala pizten da zalaparta apaizen artean, jasotzen du abisua, baina Jose Antoniok ez zuen amore eman. Orduko hartan horrela pasatu zen kontua.

Bere *eraikitzaile* bokazioak, dena den, oraindik gauza gehiagotarako ere ematen zuen. Horrela, 1960an Jose Migel Barandiarani laguntzen dio Gernika inguruko Atxeta koba induskatzen. Bere bizitzaren pasarte hau ere maitasun eta harrotasun handiz kontatu ohi du sarri, alegia, nola ezagutu zuen On Joxemigel, nola laguntzen zuen goizean goiz meza ematen, gero biak batera, oinez, kobazulora abiatzeko lanera. Eta baita ere kontatzen du nola hantxe aurkitu zuten musika tresna izan daitekeen orein adar bat, alegia, lsturitzeko txirularekin batera munduan den musika-tresnarik zaharrenetako bat. Aurkikuntza paregabea, zinez.


Honela, Jose Antonio Arana gaztea bost alor desberdinetan ikusten dugu lanean eta eragile: ikasle arduratsu eta bizia seminario eta unibertsitate desberdinetan, aldizkari bateko kolaboratzaile eta zuzendari, abesbatza baten sortzaile eta sustatzaile, ekintza erlijiosotan partaide eta buru, eta, gainera, euskal goi intelektualen laguntzaile zeinahi lanetan. Guztietan aritzeko denbora zeukan, nonbait! Eta, horretaz aparte, laster bere emaztea izango zen Maiteder Bareño ezagutzeko eta hari ezkontzeko proposamena egiteko.

Familia

Ezkontza, dudarik gabe, Jose Antonioren bizitzako mugarri inportanteena da, sarritan aitortu duen bezala familia baita berarentzat gauzarik garrantzitsuena eta bere emaztea, Maiteder, *mundua pasatzeko lagun atsegina*.

Maiteder Bareño Ormaetxebarria baita ere gernikarra da eta jaiotzatik bertatik agertzen du lotura estua Jose Antonioren munduarekin. Izan ere, Raimundo Olabide jesuita euskaltzaina izan zen haren aitari *Maiteder* izena proposatu ziona alaba jaioberriarentzako, baita hark onartu ere. Eta horrela idatzi zuten orduko jaiotza liburuan, *Miren Maiteder*, baina handik urte batzuetara Euskal Herriko hainbat eta hainbat umeri gertatua gertatu zitzaion berari ere, alegia, liburutik bere izena marra lodi batez zirimarratu eta, gainean, gaztelaniazko bat ipini: *María Amada*. Urteak beharko zuten berriz ere lehengora itzultzeko, eta ez borroka latzak egin behar izan gabe epaitegietan, han gaztelaniazko izena euskarara *itzultzeko* eskatzen baitzieten. Baten batzuk ezin zuten onartu, nonbait, haren benetako izena euskarazkoa zela eta gaztelaniazko zela itzulpena, ez alderantziz. Azkenean lortu zuten gauzak bere onera ekartzea, baina ez hausnarketa saminik eragin gabe!

Esan dugun bezala, 1961ean ezkondu zen Jose Antonio Maitederrekin, eta ezteibidaian Euskal Herri osoari itzulia egiten bururatu zitzaien: Bilbo, Donostia, Baiona, Donibane Garazi, Iruñea, Gasteiz eta Gernika.




Bost seme-alaba izan dituzte: Maiteder, Kristina, Ander, Olatz eta Garikoitz. Eta harrigarria badirudi ere (edo agian, ez dirudi), gaur egun bostak dabilta lanean euskararekin eta kulturarekin lotutako gauzetan, horietako bi, gainera, bibliotekariak direlarik. Aitak sakon markatu ditu bere umeak, baina umeek ere sakon markatu dute aita. Jose Antonio pittin bat ezagutzen duen edonork badu elkarrekiko harreman horren berri.

Lanbidea

Jose Antonio Arana, ikasketaz abokatua eta ekonomista da, eta lanbidea ere gazte-gaztetatik bi alor horietara bideratu zuen. Gorago esan dugun bezala, gazte-gaztetatik hasi zen saltzaile eta biltegiko administratzaile lanetan, aitari lagunduz. Geroago ere enpresa munduan jardun zuen eta abokatu lanetan ere eman zituen urte luzeak. Baina gazte-gaztetatik ere sakonki inplikatu zen mila eta bat ekimen kulturaletan: bibliotekak, abesbatzak, aldizkariak, elkarte erlijiosoak... Eta hementxe azaltzen zaigu gure Jose Antonio *eraikitzailearen* biografiaren bereizgarri nagusitako bat: denborarekin kultur-ekintzailea enpresa-gizonari nagusitu zitzaion eta, poliki-poliki, kulturak eta kultur-kudeaketak bere egun osoa okupatu zuten, zinezko profesionala bihurtu arte.

Esango genuke gutxi-gutxitan ikusten dela horrelako profil biografikorik Euskal Herrian, non eta, tamalez, enpresa-gizon *eraikitzaileen* ospea beti oso goitik joan den gizartearen barruan, kulturgintza, aldiz, bigarren mailakotzat hartua izan delarik gehienetan. Ondorioz, gure enpresa-gizon eta kudeatzaile profesionalek gutxitan izan dute kultur kezkarik, nahikoa lan baitzuten, nonbait, norik bere enpresa aurrera ateratzen, eta kasu gutxi egin diote kulturari, argi eta garbi baztertu eta mespretxatu ez dutenean. Kultur munduko jendea, bere aldetik, uzkur eta lotsati agertu izan da ekonomista, enpresari eta kudeatzaileen aurrean, eta beren bolizko dorre txikietan babestu izan dira sarri, munduko arazoetan murgiltzeko beldurra jarrera estetizistekin ezkatutuz. Mezenas gutxi izan dugu Euskal Herrian, arazo historiko hori gogor salatu eta gaitzetsi izan dutelarik Julio Caro Baroja eta Koldo Mitxelena bezalako intelektualek.



Jose Antonioren biografia, aldiz, guztiz bestelakoa da, mundu biak ederki baino ederkiago jakin izan baitu uztartzen eta bateratzen: abokatu eta bibliotekari, ekonomista eta abesbatza-zuzentzaile, enpresa-kudeatzaile eta idazle, saltzaile eta ikerle, gauza guztiak batera harrigarriko bizitasun eta zorroztasunez. Dena den, enpresa mundutik abiatu arren denborarekin kulturzalea nagusituz joan zen gorabehera franko eman dituen prozesu batean.

Aipatu dugu dagoeneko gazte-gaztetatik hasi zela aitari laguntzen bere etxeko negozioan, lan hori bere Zuzenbide eta Ekonomia ikasketekin batera konbinatzen zuelarik. Baina 1958an aukera profesional berri bat zabaldu zitzaion: Formica Española S.A.-n salmenta-ordezkaritza postua ateratzen du, euskal probientziak, Santander eta Logroñorako. Formika material berria zen orduan eta Jose Antonioren lana zen herririk herri ibiltzea arotzei erakusten eta ezagutarazten. Primerako aukera Euskal Herria ezagutzeko. Baina familiako gizona izanik etxetik gertu nahiago zuen eta, hartara, Astra, Unceta y Cia. enpresan lanpostu garrantzitsu bat eskuratzen du 1963an: kudeatzaile nagusia.

Astra enpresa handia eta garrantzitsua izan zen Gernikan 1997an itxi zuten arte. Berez Eibarren sortu zen, 1903an, Juan Esperanza eta Pedro Unzetaren eskutik, hango armagintza tradizioaren barruan, baina handik gutxira Gernikara etorri zen eta berehala arrakasta handia zuen. 1925etik aurrera Unzeta familiaren eskuetan geratu zen (Unceta y Cia. zen orduko izena) eta bere produktu nagusia Astra izeneko pistola zen, hain garrantzitsua ezen denborarekin fabrikak berak ere Astra izena hartu zuen. 1960ko hamarkadan hedapen handia izan zuen eta testuinguru honetan kontratatu zuten Jose Antonio. Lanpostu horretan 1968ra arte iraun zuen, hots, atxilotu eta kartzelaratu zuten arte ETari laguntzeaz akusatuta. Eta honekin Jose Antonioren bizitzako beste alor batera pasatzen gara: politika.


Politika

Augusto Unzeta (1923-1977), Astra fabrikako nagusia, frankista porrokatua zen eta kargu politiko garrantzitsuak bete zituen, besteak beste Gernikako alkate eta Bizkaiko Diputazioko diputatu, presidenteorde eta presidente. Besteak beste, bere eraginez izendatu zuten Francisco Franco diktadorea Gernikako seme kuttun (1966). ETAk erahil zuen 1977an, Bizkaiko Diputazioko presidente zela.

Dударик gabe Jose Antonio Arana Martixa haren antipodetan dago politikoki, eta haren biografiaz honez gero esan duguna erakusgarri nahikoa dirudi. Definizio bat eman behar izango bagenu esango genuke abertzalea dela ororen buru, hitzaren zentzurik zabalenean, eta antifrankista porrokatua. Horrek, jakina, ez dakar halabeharrez maila pertsonaleko inongo etsaitasunik inorekin, eta Jose Antonioren kasuan oso nabarmena da mota guztietako pertsonekin harreman adiskidetsuak izateko duen erraztasuna. Honetan ere jarrera *eraikitzaileari* eutsi dio, bere ideiak argi eta garbi defendituz, aktiboki gainera, baina aldi berean jarrera adeitsuetan mantenduz beti. Bere herria, Gernika, izan da dudarik gabe jarrera hori sustatzeko izan duen eskola nagusia: aipatu dugu, adibidez, Gau Gurkintza Espainiarrean parte hartu zuela herriko elkartearen buru eta banderadun izatera iritsi arte, nahiz eta elkarte hori nagusiki frankistez eta espainiarzaleez osatuta egon nabarmenki.

Baina haren adeitasunak ez du beti kontrako jarrera berdina aurkitu. Giro orokorra ere inoiz ez da oso aldekoa izan. Eta adibideak ez dira falta.

Lehenak, beharbada, ez du zerikusi zuzenik politikarekin, baina bai zeharkakoa. Esana dugu hamasei urtekin seminarioa utzi zuela, baina ez dugu istorio osoa kontatu. Izan ere, Gasteizko



seminariotik bota egin zuten espediente zabaldu ondoren; bere errua, bere bekatua, gelan Danteren *Divina Comedia (Jainko antzerkia)* edota Unamunoren liburu batzuk ezkutatzea, inork ikusi barik irakurtzeko. Izan ere, Andres Mañarikua bibliotekariaren laguntzaile gisa liburu mordoa pasatzen zen bere eskuetatik, batzuk debekatutakoak gainera, eta horrelako batzuk irakurtzeko irrika gehiegizkoa suertatu zitzaion, nonbait. Errepara dezagun Dante eta Unamuno idazle erlijiosoak direla errotik: haiekiko debekua eta beldurra gerraosteko giro paranoikoan baino ez dira ulertzen, eta erabat neurritz kanpokoak gertatzen dira gaur egun, baina orduan haiek irakurri nahi izatea bekatu latza zen seminarista batengan. Jose Antoniok berak inoiz edo beste, umore handiz, kontatu izan du nolako shock izan zuten bera eta bera bezalako seminaristek Andres Mañarikua ikusi zutenean Alessandro Manzoniaren *Los novios (Ezkontzeko hitzemanak)* eleberria besapean zuela paseatzen. Hura mutil gazteen harridura! Garai hartan aski zen *novios* hitza ikustea bekatu beltzenak irudikatzen! Eta, zer esanik ez, Manzoni bezalako idazle katoliko eta guztiz aipatu bat seminaristen begietan ezezaguna ez ezik, susmagarria suertatzea, seminarioaren orduko maila kulturalaren neurria ematen digu. Ez da arraroa Jose Antonio giro itogarri haren kontra errebelatzea.

Ettxera itzulirik Arantzazura joateko aukera eskaini zioten baina nahiago izan zuen etxean gelditu, bere kontura ikasten. Amak, penak arintzeko edo, traje berri bat egin zion, dotore-dotorea, korbata eta guzti. Baina hark ere bazuen bere akatsa: berdea zen eta, hortaz gain, korbata hiru koloreduna, gorria, berdea eta zuria. Eta horrela, egun batean gure Jose Antonio lasai-lasai Muxikatik Gernikara bidean dela, poz-pezik traje berriaz jantzita, guardia zibil batzuen arretera erakartzen du; hurrengo pausoa kuartelera eramatea izan zen eta, hantxe, kristonetako jipoia ematea. Ettxera bidali zuten berehala, handik aurrera kolore horiek janzkeran ez erabiltzeko agindu zorrotza emanda.


Bi anekdota horietan erraz antzeman daiteke zein arriskutsua zen garai hartako Euskal Herrian antifrunkista izatea, edo horretarako susmoa piztu zezakeen zantzurik txikiena ere erakustea. Agintarien asmoa jende otzana eta esanekoa sortzea zen, etxean geratuko zena isil-isilik, inolako gizarte-ekintzatan

inplikatu gabe. Horregatik hain juxtu ere du meritu handia Jose Antonio bezalako *eraikitzaileen* lana eta testigantza, sekula ez baitu onartuko isilik eta mutu inposaketak onartzea.

Aipatua dugu ezkondu arte eraman zuen kulturgintza emankorra. Gehienen kasuan ezkontzea mundu horrekiko konpromisoak bertan behera uzteko sasoia iragarriko zuen, baina ez Jose Antonioren kasuan: segitzen du idazten, kultur ekitaldiak antolatzen, mota guztietako ekimenetan parte hartzen. Eta horrek, dudarik gabe, bere izena herritar askoren artean famatu bazuen ere, beste batzuen aurrean susmagarri bihurtu. Hortik esplikatzeko da, ziur aski, pairatu zuen salaketa, fabrikako lanpostu eder hartako kaleratzea ez ezik kartzela ere ekarri ziona. Basaurin egon zen 1967-1968 bitartean, baina han ere ezin geldirik egon: kultura orokorreko eta euskarazko eskolak antolatzen ditu presoentzat eta kultura lantzen saiatzen da; han irakurri zuen, adibidez, Oteitzaren *Quosque tandem*, latinezko izenburua zuenez gero kartzelara eragozpen barik sartu zen liburua, umore handiz Jose Antoniok kontatzen duen bezala. Joaquín Ruiz Jiménez abokatu ospetsuaren lanari esker laster lortu zuen kartzela uztea, baina lan gabe dago eta abokatu bulegoa zabaltzen du, bere kontura.

Geroago itzuliko gara haren lanbide eta kultur bide kontuetara, atal honetan politika baitugu aipagai, zeren hamarkada batez Jose Antoniok jarduera politiko nabarmena izango baitu.

Horrela, 1971an berriz ere espetxeratzen dute, kasu honetan kartzelan zen koinatu baten ihesa prestatzeaz akusatuta. Istorioa barregarri xamarra da, Jose Antoniok hain berezkoa duen umorez kontatzen duen bezala, baina bi aldiz pentsatuta zinez makabroa da, zeren hauxe da gertatua: badoaz bera eta bere emaztea Jaenera kartzelan den koinatua (neba) bisitatzerara, eta argazki-kamera daramate, mutilari argazki batzuk egin eta gero haren amari erakusteko; hortaz gain, jakina, beste zenbait argazki egin zituzten han hemenka eta, kasualitatez, bat nahi gabe Jaengo kartzela ondoan, kamera lurrera erorita gura barik egina; baina, nonbait, susmagarriak suertatu ziren guardia zibilen begietan eta hurrengo egunean, aitzakia lelo bat jarrita, errepedean geldiarazten dituzte, kentzen diete argazki-kamera, errebelatzen




dute erroilua eta, hara, hortxe Jaengo kartzelaren argazki bat (gura barik egina, hain juxtu ere), froga garbi-garbia, omen, ihesaldi bat prestatzen ari zirela. Barregarria, berriz ere garaiko paranoiaren erakusgarria, baina Jose Antoniori hilabeteko kartzela ekarri ziona eta Maitederri astebetekoa.

Zeren garai hartako kontuez ari garelarik, erakunde, talde eta sigla zehatzez harantzago sarritan giroaz eta gertakariez hitz egin behar da. Jose Antonio ordurako kartzelaren egona zen, pasa berria zen Burgosko epaiketa, eta bere inguruan, familian eta lagunartean, ugariak ziren konpromiso politiko eta sozial garbiak hartzen zituztenak, maila guztietan. Eta gertakari latzak bata bestearen atzetik etortzen ziren.

Latzenetakoa, ziur aski, Iñaki Garai eta Blanca Salegi senar-emazteen kasua izan zen, 1975ean gertatua Gernikan. ETako bi lagun etxean ezkatzen zituztelarik, Guardia Zibilak etxea inguratu zuen; etakideek etxe hartatik ihes egitea lortu zuten, baina haiei aterbea eman zietenak hilda agertu ziren. Istorioa luzeagoa eta konplikatuagoa da, hildako gehiago tartean, baina ez da hau lekurik aipatzen n̄abarduratan sartzeko. Izan bedi orduan guztion kontzientziak astintzen zituzten gertakarien erakusgarri bat, bat beste batzuen artean, goian aipatu dugun Unzetaren hilketara bezalakoa.

Jose Antoniok berak ez du oso maite izan halako kontuez asko hitz egitea, nirekin ez bederen. Nahiago izaten du istorio umoretsuak. Behin bakarrik, eta testuinguru aski berezi batean, entzun izan diot aipatzen Gernikako kuartelean atxilotu zuten batean pairatutako torturak. Denok dakigunez ez da horrelako istorioak konta dezakeen bakarra. Etorriko ahal da garai horretaz eta kontu horietaz, guztietaz, argi eta garbi hitz egiteko garaia!

Bitartean jarrai dezagun esaten 1976an ESB (Euskal Sozialisten Biltzarrea) alderdiaren sorreran parte hartzen duela; 1977-1979 bitartean Gernikako zinegotzi da, ESBren izenean baina HBrekin koalizioan. Urte horretan Euskaltzaindian hasten da lanean eta uzten du zinegotzi postua, baina Bizkaiko Batzar Nagusietako kide bezala segituko du 1983ra arte. Aldi horretan HBrekiko zeukan desadostasunak gero eta handiagoak izango




dira, bai bereak bai bere alderdiarenak (ESB) baina inoiz ez zuen maila personaleko istilurik izan. Hortik aurrera politika aktiboa uzten du.

Laburbilduz, esana dugu dagoeneko, eta gehiago sakonduko dugu geroago, Jose Antonioren ekintza *eraikitzailea* batez ere kultur munduan garatu zela, baina inoiz ez diola muzinik egin abertzale gisa agertzeari eta bere bizitzaren une zehatz batzuetan zuzenean inplikatu dela politika aktiboan.

Euskalgintzaren hastapena

1 948an idatzi zuen lehen artikulua laburra *Brisas Guerniquesas* aldizkarian. Hori izango da bere idazle-plaza bakarra 1964era arte, hasierako horretaz gain beste 84 artikulua idazten dituelarik, kulturaz, historiaz, musikaz... guztiak erdaraz. 1959tik aurrera, gainera, aldizkariako zuzendaria da, baina ziur aski 1964an kokatu behar da Jose Antoniok euskararekin hartzen duen konpromiso esplizitua, urte horretan idazten baitu bere lehen artikulua euskaraz, Jakin aldizkarian; izenburua, “Azkue jaunari omenaldia” (*Jakin*, 17, 1964, 9-10). Artikulu laburra bada ere, ez da kasualitatea Azkueri dedikatua izatea. Baina goazen banan-banan.

Jose Antoniok *Jakin* aldizkariarekin duen harremana aspaldi-aspaldikoa eta bere bizitzako gauza gehienak bezala harreman pertsonal sakonak daude tartean. Izan ere, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Joan Mari Torrealda... guztiak ezagutu izan ditu gaztetatik, frantziskotarrek Foruan zeukaten kolegioan irakasle baitzeuden haiek, eta sarritan joaten baizitzaizkion bisitan Gernikara. Ordurako Jose Antonio gizon ezkondua zen, aita familiakoa eta Astrako kudeatzailea, baina oso pozik murgiltzen zen frantziskotar gazte haiek eskaintzen zioten kultur giroko elkarrizketan. Behin batean, bereziki, tuberkulosi epidemia bat izan zuten fabrikan eta Jose Antonio ere gaixotu zen, beste dozena bat langile bezala; kutsadura saihesteko amaren etxean egon zen bolada batez, eta hara joaten zitzaizkion fraile gazteak eta baita beste batzuk ere, adibidez, Xabier Amuritza, orduan abade zegoena Gizaburuagan.



Hortik aurrera Jose Antoniok euskararekin daukan konpromisoa hazi besterik ez da egingo. *Brisas Guerniquesas*-en ere euskaraz idazten hasten da eta beste batzuk animatzen ditu baita ere euskaraz idaztera. Laster jasoko ditu lehenengo kexak eta abisuak aldizkaria hartzen ari zen kutsu *separatistagatik*. Euskal *eliza abertzalearen* inguruan idatzi diren topiko eta sinplifikazio ugariak argitzeko komenigarria da azpimarratzea orduan ere Gernikako parroko euskalduna, On Fernando Bizkarra, izan zela euskararen kontra nabarmendu zena, aldizkarian euskarazko artikuluak ateratzea debekatuz. Jose Antoniok ez zuen debekua onartu eta aurrera segitu zuen, ez haatik parroko jaunari hamar orrialdeko erantzun luze bat idatzi barik. Handik gutxira, 1966an, guraso talde batek Seber Altube ikastola sortzen du Gernikan; Jose Antonio eragile nagusien artean da. Itzelezko mugimendua antolatzen da herrian, bostehun sinaduratik gora biltzen dute eta, azkenean, euskarazko artikuluak argitaratzea debekatu nahi izan zuen parroko berbera behartuta aurkitzen da elizaren lokal batzuk ikastola egiteko uztera. Arrakasta itzela, dudarik gabe.


Dena den, zabaltzeko orduan hamahiru ume zeuden zerrendan, tartean Jose Antonioren alaba bi, lau eta bi urtekoak. Lehenengo urte haietan arazoak mota guztietakoak ziren, ez bakarrik orduko autoritate zibil eta eklesiastikoekin, baita ere ekonomikoak edo akademikoak, baina giro ona zegoen ikastolako guraso eta sostengatzaileen artean. Giro hori poliki-poliki hondatzen hasi zen. Berrito ere Jose Antonioren jarrera *eraikitzailea* nabarmenduko da, bere ideiak defenditzeko erabakimena harreman pertsonalak kaltetu gabe. Zeren, ezaguna denez, 1971tik aurrera eztabaida handiak eta zatiketa mingarriak gertatu ziren ikastola mugimenduaren barruan. Gernikan bertan ikastola bitan banatu zen, batetik Seber Altube ikastolak aurrera segituko du eta, bestetik, guraso talde batek handik atera eta ikastola berri bat sortuko du, Gernika ikastola, handik gutxira monja karmeldarrena zen San Fidel ikastetxean txertatuko dena. Jose Antonio bigarren taldean zegoen.

Ez zen erabaki erraza izan ordukoa. Jose Antonioren testigantza entzunda erlijioaren auzia argi eta garbi nagusitzen zaio bestelako kontsiderazioei, alegia, berak irakaskuntza

erlijiosoa nahi zuen bere umeentzat, ez zuen batere maite izan ikastola *laikoa*. Dena den, egungo perspektibatik begiratuta bere iritzia oso baikorra da: euskara eskola guztietara hedatu da, bai Seber Altube ikastolara zein San Fidel eskola erlijiosora edota, orduko mugimenduaren prezioz, azkar euskaldundu zen herriko eskola publikora; gaur egun, eta aspalditik, guztietan ikasten da euskaraz, eta Jose Antonioren begietan hori izan da lorpen nagusia. Hori bai, lorpen hori erdiesteko ezinbestekoa izan zen herrian ikastola sortzea eta lehenengo urteetan lan handiak hartzea.

Jose Antonio oso sakon inplikatu zen ikastolen mugimenduan. Zenbat bilera! Zenbat lan! Herrian bertan, lehenengo eta behin, eta herritik kanpora ere, Bizkaiko eta Euskal Herriko gainetiko ikastolekin. Bistan da ez zebilela bera bakarrik, baina nabarmena da, baita ere, Jose Antoniok inplikazio maila handia izan zuela. Guraso bezala eta herrian bertan zituen ardurak alde batera utzita, bada beste aspektu bat nabarmentzekoa: berak lortu zuen Bizkaiko ikastoletan lanean ari zirenentzat aseguruia 1969tik aurrera. Horretarako lehenengo eta behin ordurako apezpiku zen Jose Maria Zirardarekin hitz egin eta elizaren babesa lortu zuen ikastolentzat; hortik abiatuta elkarte bat sortu zuten, Asociación de Escuelas Parroquiales de Vizcaya, legez aitortua; hurrengo pausoa izan zen Lagun Aro konpainiako Jose Aiala Zabala gernikarrekin bildu eta harekin konponketa batera iristea; hartara, maisu eta andereñoek Lagun Aroren mediku zerbitzua izango zuten istripu eta gaixoaldietarako. Ondorioz, data horretatik aurrera Jose Antoniok berak kudeatu zuen kontu guztiak bere abokatu bulegotik, eta horretarako laguntza garrantzitsu bat izan zuen sasoi horretan bertan kontratatu zuen Josune Olabarria, ordutik aurrera bere lankide iraunkorra izango dena.

Ikastolen kontuak direla-eta beste jende askorekin ere izan zen harremanetan Jose Antonio, baina hemen beste bat bakarrik nabarmenduko dugu: Henrike Knörr, orduantxe lizentziatu berria zen gaztea eta Gernikako ikastolan maisu gisa jardun zena. Hori izan zen adiskidetasun luze eta handi baten hasiera, bukaeraraino iraun zuena. Beste hainbat lekutan ere izango ziren elkarrekin, Euskaltzaindian bereziki, baina horretaz beherago jardungo gara.



Orain 1964ra itzultzea komeni da. Bada urte horretan beste gertakari bat Jose Antonioren bizitzan garrantzi berezia izango duena eta bere indarrak zuzenean euskaltzaletasunera bideratzera bultzatuko dutenak: urte horretan parte hartzen du Txillardegiren zuzendaritzapean Baionan ospatu zen Idazleen Biltzarrean. Jakina denez, biltzar horretako erabakiak dira gero euskara batua izango zenaren aurrekari zuzena.

Jose Antoniok ezagutzen zuen Iparraldea lehenagotik, besteak beste ezteibidaian handik ibilia zelako. Hortaz gain, badu beste anekdota bat bereziki maite duena: 1955ean, Gernikako gazte talde bat, Lourdesera egindako peregrinazio batetik bueltan, Donibane Lohitzunen geratu zen meza entzutera, bada, norekin trikitx egingo mezatik irteeran eta Jose Antonio Agirre lehendakariarekin! Une hunkigarria hura. Jose Antoniok orduan ere argazki-kamera eskuan zuela aprobeztatuz argazki pare bat atera zituen, lehendakaria gazteez inguratuta berau ere tartean dela. Argazki hori, gainera, sarritan ikusten da, baina Agirreraren lehen plano bat, ingurukoa ikusten ez delarik. Egun berean, bestalde, ezagutu zuten Telesforo Monzon. Haren kemena eta bizipoza beti laudatu izan du Jose Antoniok. Baina 1964an ezagutu zituen beste batzuekin harreman luzeagoa izango zuen bere bizitzan: Piarres Xarritton, Jean Louis Davant, Piarres Lafitte eta, baita ere, Txillardegi.


Txillardegirekiko konexioa garrantzitsua da Jose Antonioren bizitzan. Ez da dudarik Jose Antonioren hain ernea zen bokazio euskaltzalea indartu besterik ez zela egin Baionako biltzar horren ondorioz. Hortaz gain, handik urte batzuetara Txillardegiren bat egingo du politikan, ESB partiduaren sorreran, baina politika kontuak ez dira oso garrantzitsuak izan bien arteko hartu emanetan. Orainxe bertan, lerro hauek idazten ari naizelarik, argazki bat dut begien aurrean eta hantxe agertzen dira Txillardegi, Henrike Knörr eta Jose Antonio Arana, hirurak batera. Ez da kasualitatea.

Dena den, urte hauetan euskalgintzarekin duen harremana gehiago bideratzen da Jakin taldeak sortutako ekimenetara. Adibidez, ondo gogoratzen du 1966an Oñatiko Bidaurreta komentu ondoko etxean *Jakin* aldizkaria indartzeko antolatutako

bilera bat. Hantxe ziren Rikardo Arregi, Karlos Santamaria, Joan Mari Torrealdai, Ibon Saratsola, Ramon Saizarbitoria, Juan Jose Olabarria eta Jose Ramon Beloki. Santamariak zuzendu zuen bilera eta ondorio nagusia izan zen *Jakinek* zabaldu egin behar zuela bere alorra gai modernoagoetara, Teologia klasikotik Teologia berrira eta Giza eta Gizarte Zientzietara. Urte berean bi artikulu idazten ditu bertan Jose Antoniok, biak Historiaz. Tamalez, ez zen denbora askorik pasatuko aldizkaria debekatu zuten arte.


Izan ere, Euskal Herriko hegoaldea diktadura baten azpian bizi zen, bete-betean, eta azken hamarkadan mugimendu euskaltzalea eta abertzalea indartzen bada ere, diktadoreak hortxe iraun zuen 1975 arte. Orduan hasi ziren aukera berriak zabaltzen. Hasiera batean oso gutxi, baina nahikoa Jose Antonioren *eraikitzailetasuna* martxan jartzeko. Horrela, 1976an eta 1977an *Sakonki* izeneko euskal kultur ikastoroak antolatzen ditu Gernikan. Funtsean, hitzaldi-zikloak dira, ardatz bat edo biren artean antolatuak, garai hartako estiloari segituz. Iritsi zaigun egitarauan biurteko horretarako 35 hitzaldi aurreikusten dira, euskaraz batzuk, gaztelaniaz beste batzuk, nahiko modu orekatuan banatuta. Hitzaldiaren hasieran, euskaraz izanez gero gaztelaniazko laburpen bat egiten zen, eta alderantziz. Sarrera, doan. Antolatzailerak, egitarauaren arabera, San Fidel ikastetxeko kultur batzordea, RSBAP, Euskaltzaindia eta Jakin, baina funtsean antolatzailerak, ildo nagusia markatzen zuena, bat zen, Jose Antonio Arana Martixa. Hizlarien artean denetarik dago, arkeologoak, historialariak, juristak, idazleak, fraideak, katedratikoak... denekin konpontzen zen ondo gure Jose Antonio, mundu eta joera oso desberdinetako pertsonak izan arren. Hau da zerrenda: J. M. Apellaniz, X. Kintana, F. Zabala, G. Monreal, A. Muniategi, J. San Martin, M.A. Larrea, S. Onaindia, J.I. Uria, A. Zelaia, J.L. Orella, M. Ugalde, L. Villasante, M. Unzueta, J.M. Torrealdai, J.L. Alvarez (Txillardeggi), J.J. Gabiña, H. Knörr, G. Antsola, P. Agirrebaltzategi, J. Intxausti, E. Kortadi eta, nola ez bada, Jose Antonio Arana bera. Hizlari batzuk bizpahiru hitzaldi desberdin eman zituzten. Esajeratu gabe esan daiteke euskal kulturaren egoeraren erakusgarri aparta biltzen zela hor.

Aukera berriak ari ziren zabaltzen, beraz, eta hortxe zegoen adi gure gernikarra, bere abokatu bulegoan lanean, mota orotako



ekimen kulturaletan parte hartuz, besteak beste, eta oraingoz aipatu ez dugunez, baita ere *Zeruko Argian* eta *Anaitasunan* kolaboratuz. Hortaz gain, maila profesionalean finantza mundura salto egiten du, MPI konpainiarentzat inbertsio-agente bezala lan eginez azkenean txarto bukatu zen negozio batean. Baina bada alor bat guztiz kuttuna berarentzat eta oraingoz aipatu ez duguna: horretaz guztiaz gain, musika munduan ere aritzen da.

2 002ko maiatzaren 17an Bilboko udalak omenaldi bat eskaini zion Jose Antonio Arana Martixari Bidebarrietako eraikinean. Egun horretan haren bizitza eta lanari buruz hitz egiteko mahaian jesarri ziren, besteak beste, Henrike Knörr, Joseba Agirreazkuenaga eta Anton Zubikarai. Azken honek musikaz hitz egin zuen, luze, denbora guztian Jose Antonioren liburu bakar bati buruz hitz eginenez, *Música vasca* (1976 eta 1987). Ez da hau lekurik aproposena Zubikarairen hitzaldia laburbiltzeko (ik. A. Zubikarai, “Música vasca” in *Bidebarrieta: Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao = Bilboko Giza eta Gizarte Zientzian Aldizkaria*, 14 (2003) 351-355. or.), bai ordea liburu horri dedikatzen dizkion laudorio handiak azpimarratzeko: liburu honekin Jose Antoniok benetako mugarri bat ezarri zuen Euskal Musikaren ikerketaren historian, ehundaka datu solte, ezezagun eta sakabanatu, modu koherente batean josiz eta antolatuz, benetako *Euskal Musika* bat argitara jaulkiz. Eta horrela, ordura arte zantzu isolatuen puzzle desordenatu eta hutsunez betea besterik ez zena, euskal kulturaren kapitulu sendo bat bihurtu zaigu, ongi egituratua. Berriz diogu ez dela lekua Zubikarairen argudioak eta laudorioak bere hedapen eta sakontasun osoan jasotzeko, baina ezinbestekoa da mota honetako ale bat edo beste iruzkintzea: “La nómina de autores y su localización es muy abultada (*nadie pensaría que hubo tanto músico vasco en todas las épocas*) y en un esfuerzo de sistematización Arana ofrece...” (353. or.). Begibistakoa denez, aipuaen kurtsiba geurea da, eta ondo laburbiltzen du Zubikarairen harridura Jose Antonioren lanaren aurrean: liburu hori idatzi izan aurretik, nork esango zuen horrebeste euskal musikari izan zirela! Bai, egia da *euskal musikaz* hitz egiten zela baina, benetan serioki hartzen zen kontzeptua? Jose Antonio Aranaren ikerketaren argitalpenetik aurrera, bai. Lehenago, uste



dut beldur gabe esan genezakeela kontzeptu eztabaidagarri eta eztabaidatua zela. Geroztik ez.

Eta puntu honetan Jose Antonio berri batekin egiten dugu topo: ikerle errigurosoa. Eta oso azpimarratzekoa da, bapatean, ordura arte abokatu eta ekonomista izan den gizona, enpresa-gizona funtsean, Minervaren burutik ateratzen ikustea, guztiz armaturik, goi mailako ikerle baten *xispaz* armaturik, alegia. Hau da, beharbada, gure Jose Antonioren ezaugarririk harrigarriena: enpresa mundutik ikerketa mundura. Bai, egia da idazle gisa nabarmendu dela lehenago berrehun bat artikulutan, gaztelaniaz lehenago, euskaraz gero; egia da gaztaroan, unibertsitatean, ikerketa historiko luze bat idatzia zela ordurako; egia da ere mila eta bat kultur ekimenetan nabarmentzen ikusi dugula hogeitertan zehar. Baina hori guztia ez da nahikoa 1976ko miraria esplikatzeko, hots, *Música vasca* liburuaren miraria. Jose Antoniok bere heldutasun intelektuala erdiesten du, eta hori musika alorrean gertatzen da. Horren ondoren etorriko ziren gai berari dedikatu dizkion hainbat eta hainbat ikerketa osagarri, artikulugisa han eta hemen argitaratuak. Gaur egun ere, horretan darrai lanean.

Ikerle bezala, Jose Antonio tradizio positibistan kokatu behar da. Ez da teorikoa, datu positiboaren arakatzaille porrokatua baizik, datu-multzo handi edo txikien antolatzaile eta erakusle. Alor honetan ez da dudarik esateko zeintzuk diren bere erreferentzia nagusiak: Resurreccion Maria Azkue, Aita Donostia, Manuel Lekuona, Jose Migel Barandiaran, Seber Altube, Etxegaraitarrak, eta abar, hau da, euskal historia, musika, hizkuntza, literatura, mitologia, zuzenbidea... hitz batez, euskal kulturaren lehen arakatzaille sistematikoak eta aurkitzaile handiak. Tradizio horretan kokatzen da bere lana, eta neke handirik gabe esan daiteke Jose Antonio Arana dela kate ohoragarri horri gehitu beharreko maila bat gehiago, azkena agian. Izan ere, gorago aipatu ditugun guztiak ezagutu zituen buruz buru (baita Azkue bera ere!). Haiek bezala, baldintza kaxkarretan egin behar izan du lana gehienetan, unibertsitatekanpo, bere burua autofinantziatuz, beste mila lan eta ardurekin tartekatuz, susmo gaiztoz ingurututa ez gutxitan, eta errepresio politikoa pairatuz. Hau da, gure herriaren historian alde askotatik kapitulu triste bat

betetzea tokatu zaie intelektual batzuei, baita Jose Antonio Arana Martixari ere, bera baino lehenago beste batzuei bezala.


Eta beste haiek bezala Jose Antonio ez da inoiz ikerle hutsa izan, ezta hainbeste maite duen musika munduan ere. Musiko eta konpositore gisa egindako lanez gain (agertuko ahal dira noizbait!), eragile izan da beti, *eraikitzaile*. Goian aipatu dugu honez gero nola sortu zuen Gernikan Santa Zezilia abesbatza 1954 aldean, nola aritu zen baritono gisa *Katuska* zartzuelan, edo nola ibili zen beti ere musika ekitaldiak antolatzen, adibidez, lehenago aipatu ez duguna, Guridiren *El Caserío*, gernikar askoren laguntzaz antolatua. Hurrengo hamarkadan, aldiz, otxote batekin ikusten dugu lanean, *Ochote Bogamazua*; 1963an, otxote hori zuzenduz euskal herri musikako bost disko grabatzen ditu Bartzelonan Casa Vergara diskoetxearekin. Eta hurrengo hamarkadan, 1978an, berriz ere abesbatza bat fundatzen du, Andra Mari Korala, zeinaren zuzendari izango den urte askoan, kontzertu ugari eskainiz. Hortaz gain, Radio Popular de Bilbaon (euskaraz) eta Radio Nacional de Españan (gaztelaniaz) kolaboratzen du euskal musikari buruzko programetan.

Beraz, Jose Antoniok musikarekin izan duen harremana ezin da konplexuagoa eta aberatsagoa izan: kantari, sortzaile, zuzendari, sustatzaile, ikerle, argitaratzaile, dibulgatzaile... maila guzti-guztiak pasatu ditu. Denetarik egitea egokitu zaio, euskal kultura frankismoaren basamortutik pasatzen ari zen bitartean. Denetan nabarmendu da.

Euskaltzaindia

1 978a beste mugarri garrantzitsu bat da Jose Antonioren bizitzan. Urte horretan Euskaltzaindiak bibliotekari laguntzaile gisa kontratatzen du eta, hortik aurrera, bere bizitza profesionalaren norabidea guztiz aldatzen da: Euskaltzaindiarentzat hasiko da lanean denbora osoz, bibliotekari lehenengo eta behin, baina errealki haren egitura guztietan eragile gisa. Hurrengo urtean, 1979an, euskaltzain urgazle izendatzen dute eta handik beste bederatzi urtera, 1988an, euskaltzain oso; berehala, 1988an bertan, erakundeko diruzain izendatzen dute, eta 1993. urtean *bibliotekari akademiko*, alegia, Euskaltzaindiaren soldatapeko bibliotekaria izateaz gain, arduradun akademikoa izango da era berean. Erraz ikus daiteke erakunde honetan ere lehenago beste hainbat lekutan egitea egokitu zaiona egin behar izan duela Jose Antoniok, alegia, denetarik: lan profesionalak, akademikoak, egiturazkoak... adibidez, langile gisa bere kargua Azkue Bibliotekako *zuzendaria* da, baina errealki askoz ere ardura gehiago izango ditu, ekonomikoak bereziki. Eta Euskaltzaindian ere, lehenago beste eginkizun guztietan bezala, alor guztietan nabarmendu da. Dударik gabe, Azkue Biblioteka izan da bere zeregin maiteena, hor eman ditu ahalegin handienak eta ordurik ederrenak, baina hurrengo atalean arituko gara horretaz zehazki.

Euskaltzaindian izan zuen lehen harremana gazte-gaztetan gertatu zen. Denok dakigunez, Resurreccion Maria Azkueri zor zaio Gerra Zibilaren uholdearen ostean Euskaltzaindia zutik mantentzea. Zutik, eta ez askoz ere gehiago, garai haietan (1940ko hamarkadan) aski eta sobera zen Euskaltzaindiarentzat




zutik mantentzearekin. Bada, Lekeitioko apaiz gogoingarri hark ez zuen amorerik eman ezta urterik txarretan ere, eta bizi izan zen bitartean, goizero-goizero, txintxo-txintxo, jaiki, meza eman eta Erribera kaleko egoitzara abiatzen zen. Erriberako etxe mitiko hura! Zenbat euskaltzalek ez ote du gaur egun ere aipatzen enbatatik Azkuek salbatu zuen azken portu umil hura! Baina, zinez askok aipatzen badute ere, zenbat dira Azkue hil baino lehen, 40ko hamarkada beltz hartan, handik pasatakoak? Gaur bizi direnetatik gutxi, oso gutxi. Jose Antonio bera gazteenetakoa izango da. Han ikusi zuen behin batean Azkue zaharra, bere bulegoan jesarrita, lanean. Segundo batzuk baino ez ziren izan eta hogeitau urteak oraindik bete gabe zeuzkan gazte harentzat momentu hark, orduan, ez zuen berebiziko garrantzirik izan. Ez zekien, orduan, hogeita hamar urte geroago berau jesarriko zela mahai haren ondoko aulki hartan berean, berak antolatuko zituela apaiz zahar haren artxiboa eta biblioteka, berak sortuko zuela, handik abiatuta, biblioteka berri bat, eta biblioteka horri Azkue Biblioteka jarriko ziola izena. Segundo iheskor batzuk, asturuaren iragarle ezkutuak joan doan bizitza euskaltzale batean, Jose Antoniorentzat, aldiz, bizitza bat hastapenetan, orduan.

Baina azkarregi joan gara oroitzapenetan barna. 1978a da eta Euskal Herria borborka ari da azken urteetan ez bezala. Euskaltzaindia berpizten ari da eta Jose Antonio berehala hasten da lanean. Bibliotekako lanez gain, bere lehen lan garrantzitsua Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak antolatzea izango da. Honetan ere ez dabil bakarrik, aitzitik, Bilbon lantalde gogor bat ari da gorpuzten Euskaltzaindi barruan eta Jose Antoniok bere lekua hartzen du hor besteen ondoan: langileen artean Jose Luis Lizundia, Juanjo Zearreta, Rikardo Badiola, Rosa Mari Artza, Nere Altuna... euskaltzainen artean, berriz, Luis Villasante, Alfonso Irigoien, Juan San Martin... euskaltzain urgazleak ere badira, adibidez, Xabier Kintana, gerora euskaltzain oso eta erakundearen idazkari izango dena. Baina hemen ezin ditugu guzti-guztiak aipatu. Izan ere, horixe da besteak beste egoera orokorra aldatu izanaren erakusgarri bat: orain jende asko ari da lanean erakunde eta talde ugarietan, maila guztietan. Euskaltzaindian ere urteetako inertziak gaingitu eta dinamika gero eta sendoago bat ezartzen ari da. Jose Antonioren *eraikitzailetasuna* naturalki xertatzen da horretan. Eta lanak ugariak eta desberdinak badira

ere, eta ardura guztiak konpartituak, Gernikako jardunaldi hauetan Jose Antoniok toki berezi bat betetzean duela deritzogu. Testuinguru horretan mundu guztiko ikerleekin jarri zen harremanetan: Georgia (Sobiet Batasuneko kide orduan), Frantzia, Alemania, Ingalaterra, Austria, Polonia, Suedia, Japonia, Estatu Batuak... Gero ohorezko euskaltzain izango zen Suzuko Tamura japoniarraren aurpegi irribarretsua eta euskarazko jardun harrigarri naturala dira orduko hartatik gure gogoan geratu den oroitzapen nagusia, baina antolakuntza lanak hori baino askoz ere konplikatuagoak izan ziren.

Ezaguna denez, euskara batuaren sorreraren fase kritikoenak hamarkada oso bat hartzen du, Arantzazuko Biltzarretik (1968) Bergarako Biltzarrera (1978). Jakina denez ere, askoz ere lehenagotik zetorren batasun-gogoia, baina data horietara arte ez zen posible izan hura gauzatzea. Jose Antonio bera betidanik egon zen arazo horrekin kezkatuta eta horren froga garbia da Euskal Idazleen Baionako Biltzarrean (1964) parte hartu izana, hots, Arantzazu aurretik batasunaren alde egin zen ekitaldi nagusian partaide izatea, baina bera ez da filologoa, ezta hizkuntzalaria ere, eta jite estriktoki linguistikoa duten arazoak inoiz ez dira bere lehenetasunen artean izan; bai, aldiz, hizkuntzalariek lan egin dezaten azpiegiturak eta harremanak prestatzea. Hortik, adibidez, Azkue Bibliotekaren sorrera eta bultzada handia, hortik ere Euskaltzaindiaren biltzar eta jardunaldien antolakuntzari aurrerantzean dedikatuko dion arreta eta ahalegina.

